

IRABAZI ITURRIAK

Gure diru iturri nagusia aplikazioan emango dugun eskaintza bat izango da gure enpresatik at dauden enpresek publizitatea egin ahal izateko. Honez gain, aplikazioak aparkalekuan lekua erreserbatzeko aukera ematen du baina aukera hau eskuratu ahal izateko gehiago ordaindu behar izango da. Beraz, modu horretara ere irabaziak lortuko ditugu baina ez, publizitatearekin lortuko ditugunak bezain beste.

Publizitatearen bidez dirua lortu ahal izateko, Donostiako aparkalekuen inguruan dauden denda, jatetxe, banku eta abarrekin harremanetan jarriko gara beraien enpresen publizitatea gure aplikazioan azaltzeko. Ondorioz, enpresa horiek ordaindu egingo digute beraien publizitatea gure aplikazioan agertzeagatik. Azken finean, gure aplikazioa erabiltzen dutenak, probabilitate handiagoa izango dute aparkatu duten aparkalekuaren inguruan dagoen zerbitzuren batean zerbait kontsumitzeko. Beraz, alde batetik, gure aparkalekuen inguruko enpresei komeni zaie gurekin harremanetan jartzea haien agerikotasuna handitzeko. Eta beste alde batetik, gure irabazi iturri nagusiak izango dira. Geroz eta jende gehiagok erabili aplikazioa, publizitateak ikusle potentzial gehiago edukiko du eta ondorioz, gure aplikazioan azaltzeak interes gehiago izango du.

Erreserben inguruan, jendeak gure aplikaziotik erreserba bat egiten duen bakoitzean, pixka bat ordaindu beharko dute. Ordainutakoaren portzentaje bat guretzat izango da eta beste portzentajea aparkalekuko enpresarentzat. Beraz, irabazi iturri hau bigarren mailakoa izango litzateke, hemendik dirua irabaziko dugulako, baina ez publizitateatik irabaziko duguna bezain beste.

Gure ustez, erreserben zerbitzu hau, Donostian ekitaldi bereziren bat dagoenean erabiliko du jendeak bereziki eta orduan aterako diogu etekin handiena. Ekitaldi berezi hauek izan daitezke: Aste Nagusia, Zinemaldia, Jazzaldia...

Honez gain, aparkalekuei aukera emango diegu gure aplikazioan aparkalekua bilatzerako orduan aparkalekuak zer postutan azalduko zaizkion erabiltzaileari. Hau da, aparkalekuei aukera izango dute gurekin harremanetan jarri eta guri ordainuz gero, bilaketan lehenengo postuetan azaltzeko.



Naroa Etxebeste
Beñat Rios
Asier Alkorta
Martxel Parrondo
Oihane Elizegi

